

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure elkarte mota erosleekin eta hornitzaileekin izango genukeen harremana izango litzateke. Izan ere, gure proiektuak funtziona dezan ezinbestekoa dugu aliantzak egitea.

Guk Grupo Billingham-ekin kontaktatuko genuke, Madrilen, Bartzelonan eta Alikanten egoitzak dituen enpresa bat da eta eskaitzen dituzten hainbat produktuetatik, gure nahiera pertsonalizatu daitezkeen gomazko pultserak erosiko dizkiegu, ondoren, gure qr-a ipini ahal izateko. Beraz, Grupo Billingham enpresa gure hornitzailea izango litzateke. Enpresa hau, 1975. urtean sortu zen enpresa familiarra da eta haien baloreekin bat egiten dugunez, haiekin aliantza egitea oso aproposa iruditzen zaigu. Izan ere, haien irabazien zati bat Gobernu Kanpoko Erakundeetara dohaintzan ematen dute, mundua hobetzen lagundu ahal izateko.

Bazkideak ere izango genituzke. Hasteko, taldea osatzen dugun pertsonak, bakoitzak dituen gaitasunak erabiliz, enpresa osatuago bat sortzeko aukera izango genlukeelako. Batetik, June Ciak, publizitatea eta marketina aurrera eramateko ardura edukiko du, komunikazioetan iaioa baita. Bestetik, arazoen aurrean soluzioak bilatzeko dituen erraztasunarengatik, Amaiur Lemos bezeroentzako arretan egingo du lan. Hirugarrenik, ordenagailuekin duen trebetasuna dela eta, Uma Otezabalek webgunea eratu eta erosleek bertatik egiten dituzten eskaerak kontrolatuko ditu. Hasiera batean enpresa txikia izango garen horretan, eskualdean egingo dugu lan soilik, eta ingurumena ez kaltetzeko banaketak bizikletaz egingo ditugu, Markel Noval eta Eneko Esnaola kirolari trebeak direnez, banaketaz arduratuko dira. Enpresa handitzean, ordea, banaketa sistema aldatuko dugu.

Bai hornitzaileak eta bai erosleak oso garrantzitsuak izango lirateke gure enpresarentzat. Hornitzailearik gabe ez genuke pultserarik izango eta ezngi genuke diru iturririk izan. Eroslerik gabe ere enpresak ez luke aurrera egingo, izan ere, eroslerik ez bagenu, ez genituzke pultserak salduko eta diru irabaziak izan beharrean zorrak izango genituzke,